

# SURPOSAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZAK:

## 1.a) Elementu komunen gaineko lanak:

- . Aurrekontuaren %15. Diru-laguntza hauek ez dira itzuli behar.
- . BIRGAITZE INTEGRATU GUNE barruko merkataritza-lokalen fatxadak egokitzeko lanek ere, diru-laguntza hauek izango dituzte.

(2020rako gehiengo diru-laguntza = **4.632,42 €**)

\*Zaintze lanak, irisgarritasun unibertsal lanak, edo efizientzia energetikoa lortzeko lanak direla eta, Surposak ematen dituen diru-laguntzak jaso nahi dituzten ereikinek, hauek eskatu baino lehen, EITa (Eraikinen ikuskapen Teknikoa) egin beharko dute, eraikinaren antzitasuna kontutan hartu gabe.

\*Jabeen komunitate bakoitzeko, elementu komunak eta pribatiboak birgaitzeko SURPOSAk emandako diru-laguntzen zenbateko osoa, ezin izango da 35.000 €tik gorakoa izan. Zenbateko hau, onuradunen artean hainbanatuko da bidezkoa denean eta, tramitazioan eta onarpenean elementu komunen gaineko lanak lehentasuna izango dute, elementu pribatiboen gaineko lanen aldean.

## 1.b) Elementu pribatiboen gaineko lanak: Bakarrik etxebizitzak.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza kalkulatzeko, obren aurrekontuei tope bat jarriko zaie. Topea formula honen bidez kalkulatu da:  $0,40 \times \text{etxebizitzaren oinarritzko prezioa} \times \text{azalera erabilgarria (gehienez 90m}^2\text{)}$

Diru-laguntza duten lanak:

- . Instalazioen aldaketak
- . Bizigarritasunerako gutxienezko baldintzak lortzeko lanak
- . Eraikitze onaren oinarrietara egokitzapena.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak:

- \* Diru-sarrera haztatuak (DH), GSIren parekoak ego gutxiago badira, aurrekontuaren %15.
- \* Diru-sarrera haztatuak (DH), GSI eta GSI bikoitzaren artean badaude, aurrekontuaren %10.
- \* Diru-sarrera haztatuak (DH), GSIren bikoitza baino gehiago badira, aurrekontuaren %5.

## 1.c) Lan Baimenen hobaria. Udalak ematen du

- \* Elementu komunen gaineko lanen hobaria: (fatxada nagusia, oztopoak kentzeko lanak, ...)%95.
- \* Birgaitze integratu gunean edo gune degradatuan egiten diren bestelako lanen hobaria: %50.

. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzetan, 60€ baino gutxiagoko diru-laguntzak ez dira ordainduko

. SURPOSAren diru-laguntzak kobratzeko eskaera epea, gehienez 6 hilabetekoa izango da. 6 hilabeteko epea hau, obraren amaierako ziurtapen- agiriaren datarekin hasiko da. 6 hilabete hauek igarota, diru-laguntzak eskatzeko eskumena galduko da. SURPOSAk ez du aurre jakinarazpenik eman behar.

. Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zerga erregulatzen duen Foru arauaren arabera, eraikinak birgaitzeko, Surposak ematen dituen diru-laguntzak, ondare etekinak izango dira, eta, hauek, onuradunaren PFEZko zerga oinarri orkorrean sartuko dira. Diru-laguntza hauengatik tributatu beharko da.